


LANBIDE PROGRAMACIÓN  
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



ELEKTRIZITATEA ETA  
ELEKTRONIKA

INSTALAZIO ELEKTRIKO  
ETA AUTOMATIKOETAKO TEKNIKARIA

7. modulua: **Instalazio Domotikoak**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE  
HEZIKETAKO ZIKLOEN  
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN  
DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



**ELEKTRIZITATEA  
ETA DOMOTIKA**

## **INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOETAKO TEKNIKARIA**

### **7. modulua: Instalazio Domotikoak**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA**

Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**  
Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko uztaila

Egilea: Josu Álvarez Pérez

Edizioa eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán  
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA  
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-1440/2010

# AURKIBIDEA

Orduak: 126  
Unitate kopurua: 7

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzer eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzer gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or.
1	1. unitate didaktikoa: Instalazio domotikoetako mota orotako sistemak, kudeaketa arloak eta aplikazioak identifikatu eta aztertea	08. or.
2	2. unitate didaktikoa: LANEKO ARRISKUEN azterketa eta prebentzioa. INGURUMENA BABESTEKO neurriak jarduera elektrikoaren garapenean	14. or.
3	3. unitate didaktikoa: Instalazio automatizatuetako sentsoreak eta eragingailuak muntatu, konfiguratu eta mantentzea	17. or.
4	4. unitate didaktikoa: Korrante eramaileen bidezko sistemak diseinatu, muntatu, konfiguratu, programatu, zerbitzuan jarri eta mantentzea	23. or.
5	5. unitate didaktikoa: PLCan oinarritutako sistemak diseinatu, muntatu, konfiguratu, programatu, zerbitzuan jarri eta mantentzea	32. or.
6	6. unitate didaktikoa: Eremuko busaren bidezko sistemak diseinatu, muntatu, konfiguratu, programatu, zerbitzuan jarri eta mantentzea	43. or.
7	7. unitate didaktikoa: Instalazio domotiko baterako proiektua egitea	52. or.



## Unitate didaktikoen sekuentziak eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK							UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6	M7		
							UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X	X	X	X	X	X		UD1: Instalazio domotikoetako mota orotako sistemak, kudeaketa arloak eta aplikazioak identifikatu eta aztertzea.	10 h
						X	UD2: LANEKO ARRISKUEN azterketa eta prebentzioa. INGURUMENA BABESTEKO neurriak jarduera elektrikoaren garapenean.	6 h
X	X	X	X	X	X	X	UD3: Instalazio automatizatueta SENSOREAK ETA ERAGINGAILUAK muntatu, konfiguratu eta mantentzea.	15 h
X	X	X	X	X	X	X	UD4: KORRONTE ERAMAILEEN bidezko sistemak diseinatu, muntatu, konfiguratu, programatu, zerbitzuan jarri eta mantentzea.	12 h
X	X	X	X	X	X	X	UD5: PLCan oinarritutako sistemak diseinatu, muntatu, konfiguratu, programatu, zerbitzuan jarri eta mantentzea.	32 h
X	X	X	X	X	X	X	UD6: EREMUKO BUSAREN bidezko sistemak diseinatu, muntatu, konfiguratu, programatu, zerbitzuan jarri eta mantentzea.	30 h
X	X	X	X	X	X	X	UD7: Instalazio domotiko baterako PROIEKTUA egitea.	20 h
<b>GUZTIRA</b>								<b>126 ordu</b>

1. multzoa: Telekomunikazio-azpiegituren elementuak identifikatzea.
2. multzoa: Eraikinetako telekomunikazio-azpiegituretako instalazio txikiak konfiguratzeko.
3. multzoa: Eraikinetako telekomunikazio-azpiegituretako instalazioak muntatzea.
4. multzoa: Telekomunikazio-azpiegituretako instalazioen elementuak eta parametroak egiaztatzea, doitu eta neurtzea.
5. multzoa: Telekomunikazio-azpiegituretako ekipoetan eta instalazioetan matxurak eta disfuntzioak aurkitzea.
6. multzoa: Eraikinetako telekomunikazio-azpiegituretako instalazioak konpontzea.
7. multzoa: Segurtasuna, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA						Iraupena: 1 ordu										
<p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Moduluen garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldekideak ere.</li> <li>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.</li> <li>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.</li> <li>4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.</li> <li>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</li> </ol>																
<b>EDUKIAK</b>										<b>Multzoak</b>						
										1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.</li> <li>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</li> </ul>															
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.</li> <li>• Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.</li> <li>• Moduluen helburuak.</li> <li>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</li> </ul>															
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.</li> <li>• Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</li> </ul>															
<b>JARDUERA</b>					<b>METODOLOGIA</b>						<b>BALIABIDEAK</b>					
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den			ZEREKIN egingo den							
			Ir.	Ik.												
<b>J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.</b>	1	10 m	X	X	Irakasleak eta ikasleek nor bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.			Ez da bitarteko berezirik behar.							



<b>J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.</b>	2-4	10 min	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. PowerPoint-en egindako aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
<b>J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.</b>	2-3	10 min	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
<b>J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzen identifikazioa.</b>	5	30 min	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.</li> <li>J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.</li> <li>Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.</li> </ul>							



1. unitate didaktikoa: INSTALAZIO DOMOTIKOETAKO MOTA OROTAKO SISTEMAK, KUDEAKETA-ARLOAK ETA APLIKAZIOAK IDENTIFIKATU ETA AZTERTZEA

Iraupena: 10 ordu

- IE1:** Etxebizitzetako instalazio automatizatuak konfiguratzeko dituzten sistema automatikoak eta eremuak identifikatzen ditu, eta funtzionamendua, ezaugarriak eta aplikatzekoak diren arauak aztertzen ditu.
- IE2:** Sistema teknikoak konfiguratzeko dituzten sistema horiek hautatu izana justifikatzen du eta horien funtzionamendua ezagutzen du.
- IE3:** Etxebizitzetako instalazio automatizatu txikiak muntatzen ditu eta berauek osatzen dituzten elementuak deskribatzen ditu.
- IE4:** Instalazio domotiko baten kontrol-eremuak muntatzen ditu, betiere ezarritako prozedurei jarraituz.
- IE5:** Instalazio domotikoak mantentzen ditu, sistemaren zehaztapenei jarraituz.
- IE6:** Instalazio eta ekipo domotikoetan matxurak eta disfuntzioak diagnostikatzen ditu, eta, horretarako, neurtzeko teknikak aplikatzen ditu eta sorrazten dituzten kausekin lotzen ditu matxurak eta disfuntzioak.

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Etxeko automatizazioen tipologiak ezagutzea.
2. Kontrol, erosotasun, segurtasun, energia eta telekomunikazioen arloetako aplikazio automatikoak ezagutzea.
3. Instalazio automatizatuak osatzen duten ekipoak eta elementuak identifikatzea eta horien dokumentazio teknikoa interpretatzea.
4. Kontrol-sistemaren arabera, etxebizitzetako eta eraikinetako instalazio automatizatuak motak deskribatzea.
5. Etxebizitzeko automatizazioari aplikatutako teknologiak deskribatzea.
6. Etxebizitzetako instalazio automatizatuak dagokienez indarrean dagoen araudia kontsultatzea.
7. Gisa horretako instalazioetako erroaleen ezaugarri nagusiak deskribatzea.
8. Koordinatuta funtzionatzeko dituzten kudeaketa-eremuak.
9. Mantentze-lanen mende dauden elementuak identifikatzea.

10. E

EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitza batean automatizatu daitezkeen funtzioak identifikatzea.</li> <li>• Aplikazio-eremuak identifikatzea.</li> <li>• Instalazioa osatzen duten elementuak identifikatzea.</li> <li>• Automatizazio-sistemak identifikatzea: ezaugarriak, funtzioak eta tipologia.</li> <li>• Konfigurazioak identifikatzea.</li> </ul>	X						
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitzetako aplikatutako sistema domotikoak.</li> <li>• Instalazio domotikoen aplikazio-eremuak.</li> <li>• Instalazio domotikoaren oinarriko elementuak: sentsoreak, eragingailuak, kontrol-gailuak eta elementu osagarriak.</li> <li>• Etxebizitzetako instalazio automatizatuak dagokienez indarrean dagoen araudia.</li> </ul>	X		X				





	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitzetan instalazio domotikoen elementuak kokatzeko eta muntatzeko metodoak, betiere aplikazio-eremuaren arabera.</li> <li>• Sistema automatikoak aurreinstalatzeko elementuak: kanalizazioak, tutuak, kaxak, egitura, eta abar.</li> <li>• Etxebizitza domotikoetako instalazioetako berariazko kableatuak eta kableatu arruntak.</li> <li>• Sistema domotikoetako berariazko neurketa-tresnak.</li> <li>• Kontrol-elementuen doikuntzak.</li> <li>• Instalazio domotikoetako mantentze zuzentzailea eta prebentiboa.</li> <li>• Sistema domotikoetako eremuak mantentzeko lanak. Instalazio domotikoetako sistemak mantentzeko lanak.</li> <li>• Instalazio automatizatuetako ereduak matxurak: sintomak eta ondorioak.</li> </ul>						X												
JARRERAZKOAK							X		X										
JARDUERA				METODOLOGIA						BALIABIDEAK									
ZER egingo duten edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den												
			Ir.	Ik.															
<b>J1. Udaren aurkezpena.</b>	Guztiak	15 min	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Ikasleengan interesa pizteko, haien ezagupenak identifikatzeko eta horiek unitate didaktikoan garatu beharreko edukiekin lotzeko.	Proiektagailua. Kontzeptuen mapa.												
<b>J2. Taldeko eztabaida, domotikari buruzkoa.</b>	2	30 min		X	Gela 3 ikasleko talde txikitik antolatuko da. Haien artean eztabaida bat piztuko da euren ustez domotika zer den azaltzeko, eta adibide zehatzak jarri beharko dituzte. Ondoren, arbelean bateratze-lana egingo da.	Aurretiazko ezagupenak azalertzeko eta okerrekoak baztertzeko.	Arbela.												
<b>J3. Azalpena: banako automatizazio-irtenbideak vs. sistema domotikoa.</b>	1, 2, 3	15 min	X		Etxebizitzetan eta eraikinen ingurunean dauden banako automatizazio-irtenbide batzuk aurreko jardueran zitur asko aterako zirenez, irakasleak horietako batzuk azalduko ditu eta sistema domotikoekin alderatuko ditu.	Banako sistema baten eta sistema domotikoa baten arteko desberdintasuna zein den jakiteko.	Power Point. Bideo-proiektagailua.												
<b>J4. Etxebizitzetako eta eraikinetako</b>	1, 2, 3	15 min		X	Etxebizitzetako, eraikinetako eta industrietako automatizazioari buruzko bideoak ikuskatuko dira.	Ikasi beharreko gaien motibazioa sortzeko, eta ikasleek zehatz-mehatz jakin dezaten automatizazio-sistema bat	Bideo-proiektagailua. Hainbat esparrutako automatizazioari buruzko bideoak.												



automatizazioari buruzko bideoak ikuskatzea.					zer den, zertarako balio duen eta zein erabilera-esparru dituen.	
J5-E1. Ikuskatutako bideoei buruzko laburpen bat egitea.	4, 5, 7, 9	30 min		X	Ikasleek laburpen bat egingo dute, idatziz eta banaka, bideoen edukiaren inguruan, eta hura garatzeko gidoi bati jarraituko diote.	Aurreko jardueran eskuratutako ezagupenak finkatzeko.  Laburpena garatzeko gidoia.
J6. Azalpena eta azterlana, indarrean dagoen araudiari buruzkoak: BTEE ATO BT 51: Instalazio automatizatuak.	6, 7, 9	30 min	X	X	Irakasleak, ikasleekin batera, BTEeko 51. argibide teknikoaren edukia aztertuko du. Hala, hura osatzen duten puntu guztiak irakurriko ditu eta, ahal den neurrian, benetako kasuei erreferentzia egingo die, ikasleek hobeto ulertzeko.	Erregelamendu elektroteknikoa erraz maneiatzeko eta aztertutako argibide teknikoarekin lotutako kontzeptuak ulertzeko.  BTEE. ATO-BT-51.
E2. Test motako berariazko ebaluazio-proba, ATO BT 51ari buruzkoa.	6, 7, 9	30 min		X	Irakasleak ikasleei test motako galdera sorta bana emango die, hura bete dezaten. Galdera sorta paperean nahiz hotpotatoes edo antzeko formatuan egin daiteke, bai eta moodle plataformaren bitartez ere.	Aztertutako argibide teknikoa zein neurritaraino ulertu den ebaluatzeko.  Test motako proba Moodle edo antzekoan. Internetarako konexioa duten ordenagailuak.
J7. Kontzeptuen azalpena: - Zer da domotika? - Domotikaren aplikazioak. - Instalazio domotiko baten elementu bereizgarriak: sentsoreak, eragingailuak, nodoak. - Sarrera-irteeraren kontzeptua. - Barneko instalazio	1, 2, 3, 6, 9	1 h	X		Irakasleak etxebizitzetako eta eraikinetako automatizazioari buruzko funtsezko kontzeptuak azalduko ditu.	Etxebizitzetako eta eraikinetako automatizazioari buruzko eduki guztiak ulertzeko.  Power Point-eko aurkezpena. Bideo-proiektagailua. HLD liburua (heziketa-liburu digitala).



elektriko bat automatizatzeko sistemak eta moduak.							
<b>J8-E3. Aurreko jardueran azaldutako kontzeptuei buruzko ariketak egitea.</b>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	30 min		X	Ikasleek, binaka, aurreko jarduerarekin lotutako ariketak ebatziko dituzte.	Lankidetzaz sustatzeko, eta aurreko jardueran ikasitako kontzeptuak finkatu eta aplikatzeko.	Askotariko ariketak.
<b>J9-E4. Praktika autonomoa: nodo domotiko baten muntaia simulatzea.</b>	3, 8	1 h		X	Irakasleak praktikaren helburua zehazki azalduko die ikasleei. Beharrezko materiala eta laneko jarraibideak emango dizkie, praktika amaitzean ikasleek osatu beharreko memoria-fitxaz gainera.	Benetako kasu bat simulatuta, aurreko jardueretako eduki teorikoak praktikara eramateko.	Praktikarako gidoi-fitxa. Muntaiako erremintak. Muntaiarako elementuak. Praktikaren memoria-fitxa.
<b>J10. Kontzeptuen azalpena:</b> - Instalazio domotiko baten zirkuituak: potentziakoa, osagarria, domotikoa. - Seinale domotikoak garraiatzeko bitarteko fisikoa: kable bidez, hari gabe. - Domotikan erabiltzen diren kableak eta konektoreak: linea-kableak, bus-kableak, pare bihurrituak, KNX, beste kable mota batzuk, telefoniako eta RJ konektoreak dituzten datu-sareetako kableak, kable ardazkidea,	1, 2, 3, 6, 9	1 h	X		Irakasleak etxebizitzetako eta eraikinetako automatizazioari buruzko funtsezko kontzeptuak azalduko ditu.	Etxebizitzetako eta eraikinetako automatizazioari buruzko eduki guztiak ulertzeko.	Power Point-eko aurkezpena. Bideo-proiektagailua. HLD liburua (heziketa-liburu digitala).



<p>ordenagailu baten ataketarako (USB edo seriekoak) informatika-kableak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Instalazio domotikoen kanalizazioa.</li> <li>- Banaketa- eta kontrol-koadroak.</li> </ul>							
<p><b>J11-E5. Aurreko jardueran azaldutako kontzeptuei buruzko ariketak egitea.</b></p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	30 min		X	Ikasleek, binaka, aurreko jarduerarekin lotutako ariketak ebatziko dituzte.	Lankidetzaz sustatzeko, eta aurreko jardueran ikasitako kontzeptuak finkatu eta praktikara eramateko.	Askotariko ariketak.
<p><b>J12-E6. Praktika autonomoa, 2 nodo domotikoren bus bidezko komunikazio-simulazioari buruzkoa.</b></p>	3, 8	1 h		X	Irakasleak praktikaren helburua zehazki azalduko die ikasleei. Beharrezko materiala eta laneko jarraibideak emango dizkie, praktika amaitzean ikasleek osatu beharreko memoria-fitxaz gainera.	Benetako kasu bat simulatuta, aurreko jardueretako eduki teorikoak praktikara eramateko.	Praktikarako gidoi-fitxa. Muntaiako erremintak. Muntaiarako elementuak. Praktikaren memoria-fitxa.
<p><b>J13-E7. Praktika autonomoa, gela jakin batean sistema domotiko bat kanalizatu, elementuak kokatu eta kableatzekoa.</b></p>	3, 8	30 min		X	Irakasleak ikasle bikote bakoitzari fitxa desberdin bana emango dio. Fitxa horretan, etxebizitza baten egongela bat jasoko da 3Dn. Ikasleek automatizazio-eskakizun jakin batzuetarako beharrezko kanalizazioak eta kableak marraztuko dituzte, zein automatizazio-teknologia finkatuko den kontuan izanda (korrante eramaileak, sistema zentralizatuak edo bus bidez). Jarduera amaitu ondoren, gela eta automatizazio-teknologia bakoitzerako lortutako emaitza behatuko da.	Benetako kasu bat simulatuta, kanalizazioei, elementu domotikoen kokapenari eta horien kableatuari buruzko eduki teorikoak praktikara eramateko.	3Dko lan-fitxak. 3Dko diseinu-softwarea.
<p><b>J14-E8. Azterlan autonomoa eta aurkezpena, 3Dko infografia elkarreragileei</b></p>	1, 2, 3	30 min		X	Irakasleak ikasle bakoitzari infografia bana emango dio, hark bere kasa bistaratu eta azter dezan. Jardueraren zati hau amaitu ondoren, infografia bera duten ikasleak bilduko dira eta ados jarriko dira euren	Unitateko edukiak modu atsegingarrian erreparatu eta sakontzeko. Ebaluazio-probarako prestatzeko. Ikasleen artean lankidetzaz sustatzeko.	3Dko on line infografia elkarreragileak.



buruzkoak.					infografia zertan datzan gelako gainerako ikasleei azaltzeko.		
<b>J15-E9. 3Dko infografiari buruzko laburpen bat egitea.</b>	4, 5, 7	30 min		X	Ikasleek, banaka eta emandako gidoi bati jarraituz, ikasi duten infografiari buruzko laburpen bat egingo dute.	Unitateko eduki teorikoak barneratzeko eta laburpen bat eginda horiek paperean jasotzeko.	3Dko on line infografia elkarreragileak. Laburpenerako gidioa. Ikasleen koadernoak.
<b>E10. Autoebaluazio-proba.</b>	4, 5, 7	30 min		X	Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta bat erabiliko da.	Unitateari buruzko edukien barneratze-mailaz jabetzeko.	Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Internetarako konexioa duten ordenagailuak.
<b>J16. UDaren laburpeneko ikus-entzunezko bat ikuskatzea.</b>	1, 2, 3	15 min		X	Ebaluazio-proban lortutako emaitza kontuan izanda, ikasleei aukera emango zaie irakasleak dagoeneko azaldutako ezagupen teorikoak lortzeko edota indartzeko, laburpen moduko bideo bat ikuskatuta.	Unitateko edukiak modu atsegingarrian erreparatu eta sakontzeko. Ebaluazio-probarako prestatzeko.	Bideoa ikus-entzunezko laburpenarekin. Bideo-proiektagailua.
<b>E11. Berriazko ebaluazio-proba.</b>	4, 5, 7	30 min		X	Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta bat, eta garatu beharreko galderak erabiliko dira.	Ikaskuntza-prozesua eta bus bidezko sistemei buruzko edukien barneratzea ebaluatzeko.	Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Internetarako konexioa duten ordenagailuak.
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>OCDan hari gabeko sistema kontuan hartu beharreko automatizazio-sistemetakotzat aipatzen badu ere, esan genezake, egiaz, sistema domotiko bat baino gehiago, sistema domotiko baten barruan informazioa transmititzeko modu bat dela. Hori esanda, eta kontuan izanik 4., 5. eta 6. unitate didaktikoetan jorratzen diren sistemen barruan hari gabeko transmisio-bitartekoak (IR, WiFi edo RF) ere topatuko ditugunez, hari gabeko teknologia transmisio-bitarteko gisa ikasiko dugu landuko ditugun sistema domotikoen barruan, eta ez berezko sistema domotiko gisa.</li> </ul>							



2. unitate didaktikoa: LANEKO ARRISKUEN AZTERKETA ETA PREBENTZIOA. INGURUMENA BABESTEKO NEURRIAK JARDUERA ELEKTRIKOAREN GARAPENEAN

Iraupena: 6 ordu

**IE7: Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzen ditu, arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta ekipoak identifikatuta.**

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraio-bideak manipulatzeko dakarren arriskugarritasun-maila identifikatzea.
2. Materialak, erremintak, eta ebaketa eta konformazioko makinak manipulatzeko, besteak beste, istripuen sorbururik ohikoena zein diren identifikatzea.
3. Makinen segurtasun-elementuak (babesak, alarmak, larrialdietarako igarobideak, besteak beste) eta mekanizazioko eragiketetan erabili behar den norbera babesteko ekipamendua (oinetakoak, begien babesa, jantziak, besteak beste) deskribatzea.
4. Ingurumena kutsa dezaketzen kutsadura-iturriak identifikatzea.

EDUKIAK					Multzok						
					1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arriskuak identifikatzea.</li> </ul>										X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jatorri elektrikoko laneko arriskuak.</li> <li>• Laneko arriskuen prebentzioko neurriak.</li> <li>• Norbera babesteko ekipamendua.</li> <li>• Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.</li> <li>• Ingurumena babesteko araudia.</li> </ul>										X X X X X
JARRERAZKOAK											
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den			
			Ir.	Ik.							
J1. UDaren aurkezpena.	Guztiak	15 min	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	<b>Ikasleek alde aurreko jakintzak azalertzeko, eta horien eta garatu beharreko edukien arteko loturak ezartzeko, horiek ikasteko interesa sorraraztearren.</b>		Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.			



<p><b>J2. Kontzeptuen azalpena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jatorri elektrikoko laneko arriskuak.</li> <li>- Arrisku elektrikoen prebentziorako neurriak.</li> <li>- Norbera babesteko ekipamendua.</li> </ul>	1, 2, 3	1 h	X	X	<p><b>Irakasleak laneko arriskuen prebentzioari buruzko sarrera laburra egingo du eta, ondoren, instalazio elektrikoen berariazko arriskuen inguruan arituko da zehazki. Aipatutako kontzeptuen inguruko bideoak ikuskatuko dira. Bakoitzaren ondoren, partaidetzazko eztabaida piztuko da ikuskatutakoari buruz eta laneko arriskuen prebentziorako hartu beharreko neurriak hartzearen komenigarritasunari buruz.</b></p>	<p>Elektrizitatearen arriskuaz eta arreta-neurriak hartzearen beharraz jabetzeko.</p>	<p>Power Point-eko bideoak eta aurkezpenak. Bideo-proiektagailua. HLD liburua (heziketa-liburu digitala).</p>
<p><b>E1. Test motako berariazko ebaluazio-proba, J2an garatutakoari buruzkoa.</b></p>	1, 2, 3	30 min		X	<p><b>Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta erraz bat erabiliko da.</b></p>	<p>Ikaskuntza-prozesua eta aurreko jarduerari buruzko edukien barneratzea ebaluatzeko.</p>	<p>Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Internetarako konexioa duten ordenagailuak.</p>
<p><b>J3. Kontzeptuen azalpena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Instalazio elektriko bat konpondu eta zabaltzeko jarraitu beharreko protokoloa.</li> <li>- Argiketari-erreminten erabilera egokia.</li> <li>- Altuerako lanetarako jarraibideak.</li> </ul>	1, 2, 3	1 h	X	X	<p><b>Hasiera batean, ikasleek, taldean lan eginez, lanak egiteko prebentzio-neurriak aztertuko dituzte, bai arrisku orokorrei dagokienez, bai eta berariazko arriskuei dagokienez ere. Azterketa taldetan egin ondoren, ikasgelan bateratze-lana egingo da eta irakasleak beharrezkotzat hartzen dituen kontzeptuak argitu edo sakonduko ditu.</b></p>	<p>Istripuak saihesteko aplikatu beharreko segurtasun-araudia eta prebentzio-neurriak ezagutzeko.</p>	<p>Power Point-eko bideoak eta aurkezpenak. Bideo-proiektagailua. HLD liburua (heziketa-liburu digitala).</p>
<p><b>E2. Test motako berariazko ebaluazio-proba, J3an garatutakoari buruzkoa.</b></p>	1, 2, 3	30 min		X	<p><b>Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta erraz bat erabiliko da.</b></p>	<p>Ikaskuntza-prozesua eta aurreko jarduerari buruzko edukien barneratzea ebaluatzeko.</p>	<p>Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Internetarako konexioa duten ordenagailuak.</p>
<p><b>J4. Kontzeptuen azalpena:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arriskuen prebentzioari buruzko araudia.</li> <li>- Ingurumen-babesari buruzko araudia.</li> </ul>	Guztiak	1 h	X		<p>Irakasleak arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruz indarrean dagoen araudia azalduko du.</p>	<p>Istripuak saihesteko aplikatu beharreko segurtasun-araudia eta prebentzio-neurriak ezagutzeko. Ingurumen-babesari buruzko araudia ezagutzeko.</p>	<p>Indarrean dagoen araudia.</p>



<b>E3. Test motako berariazko ebaluazio-proba, J4an landutakoarekin lotuta.</b>	1, 2, 3	30 min		X	<b>Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta erraz bat erabiliko da.</b>	Ikaskuntza-prozesua eta aurreko jarduerari buruzko edukien barmatzea ebaluatzeko.	Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Interneterako konexioa duten ordenagailuak.
<b>J5-E4. Ariketa, jarduera elektrikoaren ondoriozko litezkeen kutsadura-iturriak identifikatzekoa.</b>	4	30 min	X	X	Ikasle talde txiki bakoitzari suposizio praktikoa bana emango zaio (1). Suposizio hori eztabaidatuko dute eta jardueraren garapenean izan litezkeen kutsadura-iturriak identifikatuko dituzte. Ondoren, emaitzak taldeari azalduko zaizkio. Taldea guztien azalpena amaitzean, irakasleak edozein jarduera garatzean ingurumena babesteko neurriak hartzearen komenigarritasuna nabarmenduko du.	Edozein jardueraren ondoriozko ingurumen-kutsaduraz eta arreta-neurriak hartzearen beharraz jabetzeko.	Power Point-eko bideoak eta aurkezpenak. Bideo-proiektagailua.
<b>J6. Ixteko jarduera, bideoak ikuskatzekoa.</b>	1, 2, 3	45 min	X	X	Elektrizitate sorrarazitako istripuei (2) eta elektrokuzio-kasuetarako lehen laguntzako teknika batzuei buruzko bideoak ikuskatuko dira.	Elektrizitatearen arriskuaz eta arreta-neurriak hartzearen beharraz jabetzeko.	Power Point-eko bideoak eta aurkezpenak. Bideo-proiektagailua.

#### OHARRAK

- J5-E4 jardueran, suposizio praktikoa mota hauetakoak izan litezke: "etxebizitza baten instalazio elektrikoa berritzea", "motorrak birbobinatzea", "olio bidezko hozketako transformadoreak konpontzea".
- J6 jardueran, ikasleei bideo batzuen gogortasun bereziaz ohartarazi behar zaie, eta ez da gomendatzen adingabeek horiek ikustea.





### 3. unitate didaktikoa: INSTALAZIO AUTOMATIZATUETAKO SENTSOREAK ETA ERAGINGAILUAK MUNTATU, KONFIGURATU ETA MANTENTZEA

Iraupena: 15 ordu

**IE1:** Etxebizitzetako instalazio automatizatuak konfiguratzeko dituzten sistema automatikoak eta eremuak identifikatzen ditu, eta funtzionamendua, ezaugarriak eta aplikatzekoak diren arauak aztertzen ditu.

**IE2:** Sistema teknikoak konfiguratzeko dituzten sistema horiek hautatu izana justifikatzen du eta horien funtzionamendua ezagutzen du.

**IE3:** Etxebizitzetako instalazio automatizatu txikiak muntatzen ditu eta berauek osatzen dituzten elementuak deskribatzen ditu.

**IE4:** Instalazio domotiko baten kontrol-eremuak muntatzen ditu, betiere ezarritako prozedurei jarraituz.

**IE5:** Instalazio domotikoak mantentzen ditu, sistemaren zehaztapenei jarraituz.

**IE6:** Instalazio eta ekipo domotikoetan matxurak eta disfuntzioak diagnostikatzen ditu, eta, horretarako, neurtzeko teknikak aplikatzen ditu eta sorrazten dituzten kausekin lotzen ditu matxurak eta disfuntzioak.

**IE7:** Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzen ditu, arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta ekipoak identifikatuta.

#### Ikaskuntzaren helburuak:

1. Etxebizitzetako instalazio automatizatuak dagokienez indarrean dagoen araudia kontsultatzea.
2. Dokumentazio teknikoaren erabilpena.
3. Proposatutako irtenbidea konfiguratzeko krokisak eta eskemak egitea.
4. Segurtasun-arauak errespetatuz lan egitea makinekin.
5. Ingurumena kutsa dezaketeko kutsadura-iturriak identifikatzea.
6. Sortutako hondakinak sailkatzea, gaika biltzeko.
7. Materialen, erreminten eta makinen manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko neurriekin erlazionatzea.
8. Instalazio domotikoak –eta horiekin lotzen diren instalazioak– muntatzeko eta mantentzeko lanak prestatu eta gauzatzean hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak zehaztea.
9. Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna baloratzea.
10. Instalazio automatizatuak osatzen duten ekipoak eta elementuak identifikatzea eta horien dokumentazio teknikoaren interpretatzea.
11. Eremuko busaren, korrante eramaileen eta sistema zentralizatuaren bidezko sistema domotiko baten sentsoreak, eragingailuak, kontrol-elementuak eta gainbegiratzeko elementuak muntatzea (3).
12. Horien funtzionamendua zuzena egiaztatzea.
13. Sentsore eta eragingailu motak identifikatzea.
14. Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraiobideak manipulatzeko dakarren arriskugarritasun-maila identifikatzea.
15. Makinen eta norbera babesteko ekipoen segurtasun-elementuak (babesak, alarmak eta larrialdietarako igarobideak, besteak beste) deskribatzea.
16. Instalazioa zerbitzuan jartzeko beharrezko doitasunarekin probak, egiaztapenak eta doikuntzak egitea, betiere dokumentazio teknikoan zehaztutakoari jarraituz.
17. Instalazioaren elementuak eta eskemetan agertzen diren sinboloak lotzea.
18. Instalatzeko aurreikusten den materialak hautatzeko katalogo komertzialak kontsultatzea.



EDUKIAK					Multzoak											
					1	2	3	4	5	6	7					
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Erabilitako transduktoreak aztertzea.</li> <li>Kableen eta ekipoen kanalizazioak eta konexioak muntatzea.</li> <li>Funtzionamendu zuzena egiaztatzea.</li> <li>Arriskuak identifikatzea.</li> <li>Laneko arriskuen prebentzioari buruzko eta ingurumen-babesari buruzko neurriak zehaztea.</li> <li>Muntatzeko eta mantentzeko prozesuetan laneko arriskuei aurrea hartzeko planak interpretatzea.</li> <li>Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.</li> <li>Elementu sentsoreetan doikuntzak egitea.</li> </ul>			X		X						X	X	X	X
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Magnitude fisiko nagusien transdukzioa (tenperatura, tentsioa, abiadura, eta argiztapena, besteak beste).</li> <li>Instalazio domotikoaren oinarriko elementuak: sentsoreak, eragingailuak, kontrol-gailuak eta elementu osagarriak.</li> <li>Plano eta eskema elektriko normalizatuak. Tipologia.</li> <li>Etxebizitzetan instalazio domotikoen elementuak kokatzeko eta muntatzeko metodoak, betiere aplikazio-eremuaren arabera.</li> <li>Sistema automatikoak aurreinstalatzeko elementuak: kanalizazioak, tutuak, kaxak, egitura, eta abar.</li> <li>Muntaia gauzatzeko teknikak: kableatua, gailuen konexioak, gailuen instalazioa, sentsoreen eta eragingailuen konfigurazioa.</li> </ul>			X	X										
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Zorrotz jokatzeko dokumentazio teknikoaren erabiltzea.</li> <li>Ordena eta metodoa izatea lanak egitean.</li> <li>Zorrotz jokatzeko araudia aplikatzea.</li> <li>Eskema elektrikoak irudikatze arauak betetzea.</li> <li>Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.</li> <li>Ingurumen-babesari buruzko araudia betetzea.</li> <li>Autonomiaz jardutea matxurak ebaztean.</li> </ul>			X	X	X	X							X	X
JARDUERA				METODOLOGIA					BALIABIDEAK							
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den			ZERTARAKO egingo den			ZEREKIN egingo den				
J1. UDaren aurkezpena.		Guztiak	15 min	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.			Ikasleek alde aurreko jakintzak azalera ditzaten, eta horien eta garatu beharreko edukien arteko loturak ezar ditzaten, horiek ikasteko interesa sorrarazteko.			Ikasleei emango zaien unitatea aurkezteko eskema.				



<p><b>J2. Kontzeptuen azalpena, SENTSOREEI buruzkoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sentsore motak, ematen duten seinalearen arabera (digitala edota analogikoa).</li> <li>- Sentsore motak, aplikazioaren edo detektatu beharreko magnitude fisikoaren arabera: kea eta sua, gasa, karbono monoxidoa, uholdea, presentzia, argitasuna, haizea, tenperatura, magnetikoak...</li> <li>- Sentsoreetan erabiltzen diren kontaktu motak.</li> <li>- Sentsoreak sistemarekin konektatzeko elementuak.</li> <li>- Aztertutako sentsoreen sinbologia.</li> </ul>	<p>2,10,13, 17,18</p>	<p>1 h 45 min</p>	<p>X</p>	<p></p>	<p>Irakasleak etxebizitza eta eraikinetako automatizazioan erabiltzen diren sentsoreei buruzko funtsezko kontzeptuak azalduko ditu, J5-E4 jarduerako praktikak egiteko ikasleek ondoren erabiliko dituzten benetako elementuak baliatuta.</p>	<p>Etxebizitza eta eraikinen ingurunean instalazio automatizatu batean esku hartzen duten sentsoreak ezagutzeko.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Bideo-proiektagailua. Sentsore-fabrikatzailearen dokumentazio teknikoa. Praktiketara erabili beharreko gailu sentsoreak. HLD liburua (heziketa-liburu digitala).</p>
<p><b>E1. Test motako berariazko ebaluazio-proba, aurreko jardueran garatutakoari buruzkoa.</b></p>	<p>3, 10, 13, 17</p>	<p>30 min</p>	<p></p>	<p>X</p>	<p>Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta erraz bat erabiliko da.</p>	<p>Ikaskuntza-prozesua eta aurreko jarduerari buruzko edukien bameratzea ebaluatzeko.</p>	<p>Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Interneterako konexioa duten ordenagailuak.</p>
<p><b>J3. Kontzeptuen azalpena,</b></p>	<p>2, 10,13,</p>	<p>1 h</p>	<p>X</p>	<p></p>	<p>Irakasleak etxebizitza eta eraikinetako automatizazioan</p>	<p>Etxebizitza eta eraikinen ingurunean</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena.</p>



<p><b>ERAGINGAILUEI buruzkoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragingailuaren eta aurreragingailuaren arteko aldea.</li> <li>- Kontaktoreak eta erreleak: horien osagaiak...</li> <li>- Errele tenporizatuak, teletengailuak, ordu-etengailuak.</li> <li>- Elektrobabulak.</li> <li>- Lanpara motak eta dimmer bidezko horien erregulazioa.</li> <li>- Pertsianen eta eguzki-oihalen motorrak.</li> <li>- Ohartarazle akustikoak eta optikoak.</li> <li>- Bistaratzaileak.</li> <li>- Aztertutako eragingailuen sinbologia.</li> </ul>	17, 18	30 m.			<p>erabiltzen diren eragingailuei buruzko funtsezko kontzeptuak azalduko ditu, J5-E4 jarduerako praktikak egiteko ikasleek ondoren erabiliko dituzten benetako elementuak baliatuta.</p>	<p>instalazio automatizatu batean esku hartzen duten eragingailuak ezagutzeko.</p>	<p>Bideo-proiektagailua. Eragingailu-fabrikatzailearen dokumentazio teknikoa. Praktiketan erabili beharreko eragingailuak. HLD liburua (heziketa-liburu digitala).</p>
<p><b>E2. Test motako berariazko ebaluazio-proba, aurreko jardueran garatutakoari buruzkoa.</b></p>	3, 10, 13, 17	30 min		X	<p>Erantzun laburretako edota test moduko galdera sorta erraz bat erabiliko da.</p>	<p>Ikaskuntza-prozesua eta aurreko jarduerari buruzko edukien bameratzea ebaluatzeko.</p>	<p>Galdera sorta Moodle edo antzekoan. Interneterako konexioa duten ordenagailuak.</p>
<p><b>J4-E3. Interneteko bilaketa autonomoa.</b></p>	2, 10, 13, 18	30 min		X	<p>Irakasleak ikasleei eskatuko die gailu sentsoerei edota eragingailuei buruzko ondoko informazioa bila dezaten: Aplikazio jakin baterako beharrezko elementuaren prezioa (3 fabrikatzailetan). Gailuaren dokumentazio teknikoa.</p>	<p>Orain edo etorkizunean beharrezkoa izan dezaketen informazio guztia webean dagoela egiaztatzeko.</p>	<p>Interneterako konexioa duten ordenagailuak. Datuak jasotzeko fitxa.</p>



					Ebaluatzeko jarduera denez, ikasleek hura amaitu ondoren, irakasleak fitxa jasoko du.		
<p><b>J5-E4 (1). Sentsoreekin eta eragingailuekin praktika autonomoak egitea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat sentsoreen bidez (termobelozimetrikoa, kea...) kea/sua detektatzea, eta ohartarazle (akustiko/optiko bati eta elektroiman bati eragitea.</li> <li>- Gas/ur ihesa detektatzea eta elektrobula bari aktibatzea.</li> <li>- Presentzia-detektagailuaren (mugimendua, soinua...), etengailu krepuskularraren eta ordu-erlojuaren bidez argiztapena kontrolatzea.</li> <li>- Dimmer bidez argiztapen gorria eta fluoreszentea erregulatzea.</li> <li>- Sakagailuen, eta haize, argitasun, euri eta abarren</li> </ul>	<p>1, 3, 4, 9 13, 18</p> <p>5, 6, 7, 8, 14, 15</p> <p>11, 12, 16</p>	10 h		X	<p>Eskemak irudikatzea: Dagokion praktikako muntaiari ekin aurretik, ikasleek muntaiarako jarraituko den eskema elektrikoaren zirriborroarekiko irakaslearen oniritzia lortu beharko dute. Zirriborrea azaldutako kontzeptuetan eta erabili beharreko elementuen dokumentazio teknikoan oinarrituta egingo dute. &lt;0}</p> <p>Muntaia-arretak instalazio egokia egiteko: Muntaiari ekin aurretik, ikasleek irakaslearen oniritzia lortu beharko dute hartu behar dituzten segurtasun-neurrii dagokienez. Horretarako, ikasleek ez dituzte gailuak muntatuko erabiliko dituzten gailu guzti-guztien dokumentazio teknikoa irakurri arte, muntaian kontuan hartu beharreko arretei so egiteko eta, hala, erabili beharreko erremintak segurtasun-neurriekin lotuko dituen fitxa betetzeko. Era berean, fitxa horretan berariazko atal bat egongo da ingurumen-zaintzaren, eta aztergai dugun praktikak sorraraziko dituen hondakinak sailkatu eta erretiratzearen inguruan.</p> <p>Abiaraztea eta matxurak konpontzea: Instalazioa abiaraziko da. Instalazioak behar bezala funtzionatzen badu, irakasleak anomalia motaren bat sorraraziko du haren funtzionamenduan, ikasleek, ondoren, antzemandako matxuren sorburuak eta irtenbidea bila ditzaten, zirkuituetan matxurak diagnostikatzeko emandako prozedurei jarraituz.</p>	<p>Diseinuen baliozkotasuna praktikan egiaztatzeko.</p> <p>Norberaren segurtasunerako neurriak zehaztu aplikatzeko.</p> <p>Ingurumena babesteko neurriak zehaztu aplikatzeko.</p> <p>Matxurak diagnostikatu eta aurkitzeko teknikak erabiltzeko.</p>	<p>Praktiketarako memoria-fitxaren eredu (2). Erabili beharreko gailuen dokumentazio teknikoa. Muntaiako erremintak. Gailu sentsoreak eta eragingailuak. Matxurak bilatzeko prozeduraren laburpen-eskema. Makinak eta erremintak maneiatzean hartu beharreko norberaren segurtasunerako neurriak eta ingurumena babestekoak zerrendatzeko fitxa.</p>



<p>sentsoreen bidez pertsianak eta eguzki-oihalak kontrolatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Presentzia, kontaktu magnetiko eta abarren detektagailuaren bidez alarma akustiko bat aktibatzea.</li> <li>- Termostatoaren eta ordu-erlojuaren bidez berokuntza-sistema bat kontrolatzea.</li> </ul>						
--	--	--	--	--	--	--

#### OHARRAK

- J5-E4 (1). Praktika guztiak aurretiaz ikasleei jakinarazi beharreko irizpideen arabera ebaluatuko dira.
- J5-E4 (2). Memoria-fitxak gutxienez atal hauek izango ditu: gailuaren kanpoko bista eta borneroa; gailuen arteko konexio elektrikoak; gailuen eta sistema domotikoaren arteko konexio elektrikoak; muntaia egokirako kontuan hartu beharreko aholkuak eta arretak; gailuaren ezaugarri nagusiak; erabilitako materialen zerrenda...
- (3). OCDan hari gabeko sistema kontuan hartu beharreko automatizazio-sistemetakotzat aipatzen badu ere, esan genezake, egiaz, sistema domotiko bat baino gehiago, sistema domotiko baten barruan informazioa transmititzeko modu bat dela. Hori esanda, eta kontuan izanik 4., 5. eta 6. unitate didaktikoetan jorratzen diren sistemen barruan hari gabeko transmisio-bitartekoak (IR, WiFi edo RF) ere topatuko ditugunez, hari gabeko teknologia transmisio-bitarteko gisa ikasiko dugu landuko ditugun sistema domotikoen barruan, eta ez berezko sistema domotiko gisa.



4. unitate didaktikoa: KORRONTE ERAMAILEEN BIDEZKO SISTEMAK DISEINATU, MUNTATU, KONFIGURATU, PROGRAMATU, ZERBITZUAN JARRI ETA MANTENTZEA

Iraupena: 12 ordu

**IE1:** *Etxebizitzetako instalazio automatizatuak konfiguratzeko dituzten sistema automatikoak eta eremuak identifikatu, eta funtzionamendua, ezaugarriak eta aplikatzeak diren arauak aztertzen ditu.*

**IE2:** *Sistema teknikoak konfiguratu, sistema horiek hautatu izana justifikatu eta horien funtzionamendua azaldu.*

**IE3:** *Etxebizitzetako instalazio automatizatu txikiak muntatu eta berauek osatu dituzten elementuak deskribatu.*

**IE4:** *Instalazio domotiko baten kontrol-eremuak muntatu, betiere ezarritako prozedurei jarraituz.*

**IE5:** *Instalazio domotikoak mantentzen ditu, sistemaren zehaztapenei jarraituz.*

